

ZORIONAK eta Jaunak eman digula URTE BERRI ON bat.

Galdera bat egin nai nuke eta auxe litzake.

Euskaldun guztiak, zergaitik ez gera euskaltzaleak?

Batzuk, badirala esango dute eta egia da, baña... zergaitik ez gara danok? Eman dam koxka.

Gurasoak, zeuen aur txikiei jaiotzatik euskeraz egin diozue eta oiek inguruan dituzuela, lagunaren artean gurasoak erderaz ari bazerate, aurrak, zer egingo dutela uste dezue? Oiek ere, euskera baztertu eta erdera erabiliko dute.

Gurasoak, irakasle eta ikastoletako andereñoak, ez dezute naikoa ikasleei euskeraz irakastea, orrez gain, euskerarentzat maitetasuna irakatsi bearrean zerate, bestela, alper alperrik gabiz. Neska mutil multzoak, ikastoletatik eta euskal mesaren ostean, ea danak erderaz itz eginez doaz eta baten batek esaten badie "erdaldunak" ote diran, danak, deadarka ekiten diote, "euskaldunak" dirala esanaz.

Nun dago orduan euskaltzaletasuna? Negargarria ene Ama. Bide onetatik, urte gitxi barru, Euskalerriko sarreretan iragarkiak ipintzeko eran izango dira esanaz: "Aquí existió un Pueblo Vasco que murió por propia desidia".

Artolabal´tar Ilari

Artolazabal´tar Ilarik irakurrita - Urte asko Bizkaian - Ilari´k idatzitakoa